

WOP CHALLENGE

BILBAO-BIZKAIA

URRIAK
24-25



0. ETAPA

2026 TXOSTENA

AURKIBIDEA

Zein da WOP Challenge-ren helburu soziala? **3**

Zer da WOP? **3**

Zertan datza 0. Etapa? **4**

Nola sor ditzake nire taldeak gaixotasun
neurodegeneratiboen aurkako borrokarako minutuak?

Nola kontsulta dezaket nire taldeak sortutak
borroka-minutuen kopurua?

Ordaintzeko moduak

Zer da Estropatada? **8**

Zer da WOPatoi bat? **10**

ZEIN DA WOP CHALLENGE-REN HELBURU SOZIALA?

WOP Challenge Bilbao-Bizkaia taldekako kirol-proba bat da, Bizkaian egiten dena eta parte hartzeko hiru modalitate dituen:



Egun eta Gauez
225km/19 etapa
2-12 errelebulari



Egunez
56km/5 etapa
2-5 errelebulari



Egunez
56km/etapak neurrira
2-8 errelebulari

Probak konpromiso sozialaren izaera argia du, onura gaixotasun neurodegeneratiboen aurkako borrokara bideratzen baita The Walk On Project Fundazioaren (WOP) bitartez.

ZER DA WOP?

WOP gizarte-enpresa bat da, eta honako helburu nagusi hauek ditu:

Gaixotasun neurodegeneratiboen terapiak bilatzeko ikerketa-proiektuak finantzatzea

Gaixotasun neurodegeneratiboen errealitatea zabaltzea

Ikerketaren eta zientziaren aldeko gizarte-kontzientzia sustatzea

Zifra batzuk:

>1.300.000€
gure helburuetara
bideratuta

>150
Hitzaldi foro ezberdinetan

Urteroko 10.000.000€
dibulgazio-inpaktua,
komunikazio hedabideen
balorazioaren arabera

440.000€
ikerketa-
proiektuetarako

Nazioarteko 7 proiektu
terapietan lehiaketa publikoaren bidez eta Zientzia
Ministerioaren eskutik

WOP Konekta
neurozientzien nazioarteko lehen kongresua

Info gehiago

www

ZERTAN DATZA 0. ETAPA?

Kirol-abentura honek amets bat du helburu:
gaixotasun neurodegeneratiboekin amaitzea.

Horregatik, izena eman duten taldeek dortsalak jaso ditzaten eta, beraz, proban parte har dezaten, 0. Etapa bete beharko dute, hau da, **gaixotasun neurodegeneratiboan aurka borrokatzeko minutuak sortu beharko dituzte.**

Nola sor ditzake nire taldeak borroka minutuak?

Taldeek 0. etapa osa dezakete eta borrokarako minutuak sor ditzakete Estropatadako tiketak salduz (WOP-ek antolatutako Bilboko bioahateen lasterketa, taldeen helmugarekin bat datorrena) edota diruzko ekarpenak eginez.

Modalitate bakoitzak helburu bat du:

FULL

**Gutxienez 800 borroka
minutu sortzea**

100 tiket saltzearen edo
400€ ekarpena egitearen
baliokidea

1DAY

**Gutxienez 480 borroka
minutu sortzea**

60 tiket saltzearen edo 240€
ekarpena egitearen
baliokidea

WALK

**Gutxienez 480 borroka
minutu sortzea**

5€ DIRU-EKARPENA = 10 BORROKA MINUTU

ESTROPATADA TIKET BAT = 5€ = 8 BORROKA MINUTU



NOLA SAL DITZAKET ESTROPADA TIKETAK?

Tiketak saltzeko 2 modu daude:

1. Tiket fisikoak. Antolatzaileek tiket fisikoak* bidaliko dizkiete izena eman duten taldeei. Tiketak saldu ondoren ordaintzen dira, hau da, taldeak ez du horien dirua aurreratu beharko.**

* Taldeak izena emateko plataformaren bidez emandako posta-helbidera bidaliko dira.

** Saldu gabeko tiket fisikoak dortsalak jasotzen diren egunean itzuli ahal izango dira.

2. Online tiketak. Taldeek online tiketen salmenta susta dezakete. Online tiketak erosi behar dituztenek nahi duten taldeari esleitu beharko diote, erosketa-prozesuaren azken urratsean.

Ikusi online denda



WOP | Erosketa | Challenge | Festival | Kultura

LA TIENDA DE WOP

Nuevo Colecciones Mujer Hombre Kids Accesorios Tickets Conoce WOP

Envíos gratis a partir de 40€ (Península) | Cambios y devoluciones gratis (Península) | Un sueño: Acabar con las enfermedades neurodegenerativas

¿Ya eres cliente? Haz clic aquí para acceder

¿Tienes algún cupón de descuento?

Código de cupón

Detalles del comprador

Nombre * Apellidos *

Correo electrónico *

Teléfono *

Dirección de envío

Nombre * Apellidos *

País / Región * **España**

Dirección de la calle *

Nombre de la calle y número de la casa

Código postal / ZIP *

WOP Challenge 2026

Si quieres asignar esta compra a un equipo, selecciónalo en este desplegable:

Ninguno ▾

[¿Qué es WOP Challenge Bilbao-Bizkaia?](#)

'Erosketa amaitu' pantaila: non esleitu zure taldea

NOLA EGIN DEZAKET DIRU-EKARPENAK?

Diruzko ekarpenak egiteko 3 modu daude:


1. Taldea inskribatzean.

Izena emateko plataforman diru-ekarpen bat egiteko aukera duzue.

2. WOP-en online dendaren bidez.

'Diruzko ekarpena' produktua erosita, ordaindu nahi duzun zenbatekoa gehitu beharko duzu eta zure taldeari esleitu erosketa-prozesuaren azken urratsean.

3. Posta elektronikoz ere egin dezakezue reto@wopmail.org helbidera idatziz edo 638 560 659 zenbakira WhatsApp bat bidaliz.



Diru-ekarpena

www

Nola kontsulta dezaket nire taldeak sortutako borroka-minutu kopurua?

"2026 taldeak" orriaren bidez, zure taldeak sortutako borroka-minutuen kopurua kontsulta dezakezu.

Tiketak edo ekarpenak erosteko epea 24 ordukoa izan daiteke, eskaera egin denetik, webgunean jasota egon arte.

Taldeak webgunea



0. ETAPA ORDAINTZEKO MODUAK

- Bizum bidez:
+34 638 560 659 telefonora

- Transferentzia bidez*:
Fundación The Walk On Project | ES63 2095 0114 60 9112945561

**GARRANTZITSUA. Transferentzia bat egitea aukeratzen baduzu, beharrezkoa da ordainagiria hona bidaltzea: reto@wopmail.org*

Edozein aukeratan, taldearen izena jarri behar da kontzeptu gisa.

Zenbat denbora du nire taldeak 0 etapa betetzeko?

Zure taldean izena ematen duzun unearen arabera! Azken eguna dortsalak ematea da, ekitaldiaren aurreko astean.

0. Etapa amaitu badut, borroka minutuak sortzen jarrai dezaket?

Jakina! Estropatadako tiketak saltzen jarrai dezakezu, edo diru-ekarpen gehiago egin.

BORROKA MINUTUAK SORTZEKO BESTE MODU BATZUK:



Erosketak egin gure online dendan, tiketak izan ala ez



WOP-en lagunak (AmiWOP) erakartzea



WOPen empresa lagunak erakartzea



Borrokarako minutu gehien sortu dituen taldeari aitortpena

WOP Challenge-ren asteburuan, gaixotasun neurodegeneratiboen aurkako borroka minutu gehien sortu dituen taldeak errekonozimendu publiko bat eta doako izen-emate bat jasoko du hurrengo ediziorako*.

**Doako inskripzioak izen-ematearen prezioa estaltzen du, baina ez horri lotutako beste gastu batzuk, hala nola 0. Etapa.*

ZER DA ESTROPATADA?

Ahate (WOPato) lasterketa bat Bilboko Itsasadarrean eta familia festa handi bat.

Ah! 2021az geroztik, lasterketa munduko lehen bio-ahateekin egiten da, landare-jatorriko materialez eginak.

Ekitaldia WOP Challenge-eko taldeen helmugaren leku eta data berean ospatzen da, urriaren 25ean.



Oso ekitaldi berezia Bilbon

- Bio-ahate geolokalizatuena lasterketa ikusgarria
- Enpresen eta taldeen WOPatuen lehiaketa



Familia festa itzela

- Haurrentzako gune harrigarria, atrakzio, jolas eta jarduerekin
- Musika zuzenean
- Gastronomia eta txosna

Estropatada-ri buruz informazio gehiago



Nola parte hartu?


Lasterketa original honetan parte hartu nahi dutenek 5€tiketa erosi behar dute.

Tiketa eskuratzen duen pertsonak:

- Zientzia minutuak batzen ditu.
- Ahate (WOPato) lasterketan parte hartzen duzu. Ahateak guk askatzen ditugu, beraz, munduko edozein tokitatik parte har dezakezu, gainera, streaming bidez ematen baitugu!
- Irabazleek sari handiak dituzte!
- Gainera, parte-hartzaile guztiek saria dute, lasterketaren ondoren, tiketak opari batengatik edo WOP produktuetan deskontuak egiteagatik truka daitezkeelako.

ZER DA WOPATOI BAT?

Zure taldeak 225 tiket edo gehiago saltzen baditu, WOPatoi lehiaketan parte hartuko duzue! Estropatadan ospatzen den enpresa, erakunde, talde eta abarren arteko lehiaketa dibertigarria.



WOPai bat bidaliko dizugu

- WOPatoi bat (XXL ahatea) bidaliko dizugu, zure irudi korporatiboarekin edo zuk nahi duzunarekin pertsonalizatu ahal izango duzuna!

Bozketa publikoa eta erakusketa

- Herritarrek WOPatoi gogokoenaren alde bozkatu ahal izango dute ekitaldiaren webgunetik. 3 lehenengoak errekonozimendu bat jasoko dute Estropatadaren sari banaketan.
- WOPatoiak erakusketa publiko batean bisitatu ahal izango dira, Bilbon. Eta Estropatadan!

WOPATOI-ei buruz informazio gehiago

www

Zalantzak dituzu?
Jarri harremanetan gure taldearekin



638 560 659



reto@wopmail.org